

**JARRAIBIDE-ORRIA**

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Zalantzarik baduzu galdetu zaindariei **ariketa egiten hasi baino lehenago**.


**EZ IDATZI EZER MEGAFONIAZ AGINDUA EMAN ARTE.**

- Jarrabide-orri honekin batera, honako material hau aurkituko duzu mahai gainean: boligrafo bat eta erantzun-orri bat. Ezer falta baduzu, eskatu zure inguruko zaintzaileari.
  - Probak egiten diren bitartean NANA mahai gainean izan behar da denbora guztian, ikusteko moduan. Mahai gainean eman dizuten materiala, azterketan zehar banatzen dena eta NANA soilik eduki ditzakezu. **Isiltasuna erabatekoa** izan behar du. Norbaitek ezegoki jokatzten badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanporatua izango da.
  - Hautaketa prozesutik baztertuak izango dira ariketak egin bitartean erabiltzeko moduan dagoen mugikorra edo beste edozein gailu elektronikoa (beste gailu batzuetara konexioa daukaten ordulariak barne) daramaten izangaiak. Ezin dira erabili belarritako tapoiak. Beraz, belarriak bistan egon behar dute.
  - **Nahiatezkoa** da antolatzaileek emandako boligrafoa erabiltzea.
  - **EZIN DA** ezer idatzi jarraibide-orri honetan, bestela orria kendu ahal izango zaizu.
1. Ariketan zuzenketa irakurgailu optikoz egingo da eta emaitzen anonimatua emaitzak onartu arte gordeko da. Beraz, oso da garrantzitsua laukitxoak ondo markatzea, horretarako **laukitxo osoa bete eta ilundu** behar da. Ez egin, bada, ez ixarik, ez biribilik. Arau hau betetzen ez baduzu, litekeena da baliorik gabe geratzea zure ariketa.



2. **Megafoniaz** agintzen denean, bete itzazu erantzun-orriaren goialdean, ezkerrean, eskatzen zaizkizun dautak: **abizenak, izena, NAN, azterketaren data, kidego edo lanpostua** ("Administrazio bereziko erdi-mailako teknikarien 2 plaza behin betiko betetzea) eta sinadura.

Erantzun orriaren goialdean, eskuinean NANA **zenbakiz eta markaz** adierazi behar duzu. Oso da garrantzitsua NANA ondo adieraztea. Ikusi eredu hau.





- Oposizio aldiko **LEHENENGO ARIKETAK- A atala-** (10:30etarako deitua) **40 galdera** ditu. **Azkeneko 10 ordezkioak** dira eta aurreko **30etakoren bat baliogabetzen bada** bakarrik hartuko dira kontuan. Beraz, galdera guztiei erantzuten saiatu behar duzu. Ariketa egiteko **ordu bete** duzu.
- Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Galdera bakoitzeko, soilik erantzun zuzen bat dago. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun-orrian jarri behar duzu zein den, zure iritziz, erantzun zuzena.
- Adi-adi erantzunak ematerakoan, boligrafo-markak ezin dira eta ezabatu. Dena den, aukeratutako erantzuna ezeztatu egin daiteke. Ikusi eredu hau.

*Rellene la casilla correspondiente a su elección en la fila superior. En este caso hemos elegido la Opción C (observe el ejemplo).*

11	▶	A	B	C	D
ANULAR		<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
		<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

*Vea cómo se anula la elección anterior y se contesta una nueva. Se anula la Opción C y se elige la Opción A (observe el ejemplo).*

11	▶	A	B	C	D
ANULAR		<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
		<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Azterketak dirauen artean, nahi baduzu, **beste erantzun-orri bat eska dezakezu**, baina gogoan izan zure datu pertsonalak, NANA barne dela eta ez duzula denbora gehigarrik izango.

- Ariketaren zuzeneko puntuazioa honako formularen bidez eskuratuko da: **zuzeneko puntuazioa ( P ) da erantzu zuzenen kopurua ( A ) ken erantzun okerren ( E ) laurden bat (  $P = A - E/4$  )**. Hau da, hiru erantzun oker bakoitzeko zuzen baten balioa kentzen da. Galdera berari bi erantzun markatuz gero ez erantzuntzat hartuko da.
- Ikusten duzunez, erantzun-orria bikoitza da: bata zuria da, eta bestea, berriz horia. **Ez bereizi orriak, harik eta azterketa bukatzen den arte**. Orriok azterketa egiten ari zaren bitartean bereizten badira, ipin ezazu orri zuria horiaren gainean, erantzunak kopia daitezzen.
- Ezarritako gehieneko denbora bukatzeko 15 minututik gora falta** direla amaitzen dutenak aretotik irten ahal izango dira. Altxatu eskua, bereizi kopia horia erantzun-orritik, eman zaintzaile bati erantzun-orri txuria, galderen koaderno eta boligrafoa, eta hartu zuzetzat kolore horiko orria eta jarraibide-orria. Ondoren irten zaitez aretotik.

**Ariketaren azkeneko 15 minutuetan ez zaio irteten utziko inori**. Amaitzen dutenak bere tokian geratuko dira denbora agortuta, galderen koaderno guztiak eta kolore txuriko erantzun-orriak jaso ondoren, **irteteko agindua ematen den arte**. Aginduaren ostean hartu zuzetzat kolore horiko orria eta jarraibide-orria.

Galderen koaderno eta erantzun zuzenen zerrenda donostia Kiroleko web orrian argitaratuko da. Bertaratze agiria behar izanez gero, posta elektronikoko honetan eskatu ezazu: **Epe\_Ope\_Kirolak@donostia.eus**